



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduak 20

Vitoria-Gasteiz, 20 de diciembre de 2022

Segurtasuna

GOBERNU KONTSEILUAK ERTZAINZAKO FAKULTATIBOEN ETA TEKNIKARIEN SARBIDEA, EGINKIZUNAK ETA APLIKATZEKO ZAIEN ARAUBIDEA ARAUTU DITU

- Eskala honetara titulazio akademiko jakin batzuekin bakarrik sar daiteke Ertzaintzari espezializazio-maila altua eskatzen duten eginkizun oso teknikoetan laguntzeko
- Eskala hau garatu da segurtasun publikoaren erronka berriei erantzuna eman diezaioketen profil oso espezializatuak sartu beharrak bultzatuta

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du *Ertzaintzako fakultatiboen eta teknikarien eskala garatzeari buruzko dekretu* berria, Ertzaintzako talde profesional erabat espezializatu honen sarbidea, hautaketa-prozesua, eginkizuna eta aplikatzekoa zaion araubidea arautzen dituen. Eskala honetara sartzeko titulazio akademiko oso jakinak behar dira, eta eskalako kideen eginbeharra espezializazio handia eskatzen duten eginkizun oso teknikoetan Ertzaintzari laguntzea da; arloak dira informazio-teknologiak, analitika, auzitegi-teknika espezializatu edo zientifikoa, artxibokoa, komunikazioa edo laguntza psikologikoa, eta abar.

Eskala hori segurtasun publikoaren erronka berriei erantzuna eman ahal izateko helburuarekin laguntzako profil oso espezializatuak sartzeko beharrean oinarritzen da. Hala, Ertzaintzako fakultatibo eta teknikoaren eskala honen barruan sortzen diren plazak [Eusko Jaurlaritzaren A eta C titulazio-taldeetakoak \(A1, A2 eta C1 azpitaldeetakoak\)](#) izango dira. Berez, Eusko Jaurlaritzak talde horietarako ezartzen dituen ordainsariak jasoko dituzte, gainerako funtzionarioen kasuan bezala.

Eskala hau sortzea 1992tik zegoen aurreikusita, baina orain arte Ertzaintzaren musika-bandari dagokionez bakarrik garatu da. Agente fakultatibo eta tekniko hauek hierarkikoki buruzagitzen mende egongo dira, eta Ertzaintzako ordutegia, diziplina, lizentziak, baimenak, oporrak eta abar aplikatuko zaizkie, gainerako agenteei bezala.

Hautaketa-prozesua

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia arduratuko da fakultatiboen eta teknikarien eskalan sartzeko hautaketa-prozesuak ere deitzeaz. Eskainitako lanpostuetarako eskatutako titulazio espezifikoaren eta garatu behar diren eginkizunen araberako proba batzuk jarriko ditu.

Gainera, Arkauteko hautaketa-prozedura osatzeko formakuntza-ikastaro espezifikoak egin ahal izango da, eta hori ere selektiboa izango da eta bi ziklo osatuko dute: lehenengoa, Ertzaintzaren egitura eta funtzionamendua ikastera

bideratua eta, bigarrena, titulazio espezifikoetako ezagutzak Ertzaintzaren premietara moldatzera zuzendua.

Bestalde, dagokion titulazioa baduten eta ezarritako gainerako baldintzak betetzen dituzten ertzainek fakultatiboan eta teknikarien eskalan sartzeko deialdietan parte hartu ahal izango dute. Bai barneko sustapen-txandaren bidez bai txanda librearen bidez sartzen direnean, Ertzaintzako lanpostuan borondatezko eszedentzia-egoeran geratuko dira. Kasu honetan ez dute egin beharrik izango Ertzaintzaren egitura eta funtzionamendua ikastera bideratutako formakuntza-ikastaroa.

Iraunaldia

Ertzaintzako fakultatiboan eta teknikarien eskalan sartzen direnek 8 urteko iraunaldia izango dute izendatzen dituztenetik zenbatzen hasita. Denbora hori igarotzen denean, edozein eskala edo kategoriatako lanpostuak betetzeko deialdi berrietan parte hartu ahal izango dute, baldintzak betetzen badituzte.

Gainera, Ertzaintzako funtzionarioak aldi batez, zerbitzu-eginkizunetan, eta gehienez 3 urtez, eginkizun espezifiko horiek betetzeko izendatu ahal izango dituzte lanpostuen zerrendan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Ezingo dira eskala honetan sartu bigarren jarduerako administrazio-zerbitzuan edo zerbitzu aktibo modulatuan dauden pertsonak.

Eskala abian jartzea

Dekretu hau indarrean jartzen denean, Ertzaintzak Ertzaintzaren Egitura Agindua eta Lanpostuen Zerrenda aldatu beharko ditu, hemendik aurrera Ertzaintzaren barruan lanpostu berri horiek betetzeko beharrezko diren eginkizun berri horiek, titulu gaitzaileak, antzinatasun-baldintzak, espezializazioa, formakuntza, eta abar sartzeko.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK LEHEN SEKTOREKO ELKARTE ETA FEDERAZIOEI LAGUNTZAK HANDITUKO DIZKIE 308.000 EURO ARTE

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak 72.600 euro gehiago bideratu ditu laguntzetara –urrian deituak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren Aginduaren bitartez–, 2022an nekazaritza eta elikaduraren arloko elkarte eta federazio profesional eta enpresarialen jardura eta funtzionamendurako (Elkarteak programa). Horrela, finantzaketa horretarako zenbatekoa 308.000 eurotik gorakoa izango da.

Areagotze horren helburua da nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorerako bereziki zaila izan den urte honetan elkarte eskatzaile guztiei erantzun ahal izatea.

Elkarte edo federazio eskatzaile bakoitzari dagokion laguntza zehatza kalkulatzeko, hainbat aldagai hartu dira kontuan, hala nola: azoka profesionaletan parte hartzea, zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia orekatua izatea, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak sustatutako jardura eta ekimenetan izandako lankidetzeta-maila, aurkeztutako proiektuen interes teknikoa eta zientifikoa, eta lortutako emaitzek dagokion sektorea hobetzeko, garatzeko eta modernizatzeko izan ditzaketen abantailak.

Ordezkaritza-gastuak eta funtzionamendu-gastu arruntak lagundu ahal izango dira diruz, bai eta azterlan eta jardura esperimentalak egiteko gastuak eta 2022an egindako azoken eta jardunaldien antolaketa-gastuak ere.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK 600.000 EUROKO DIRULAGUNTZA ONARTU DU ELKARGIRENTZAT, EAE-KO ETE-EN ETA ENPRESABURU INDIBIDUAL ETA AUTONOMOEN FINANTZAKETA ERRAZTEKO

Gobernu Kontseiluak Elkargi EBBri zuzeneko dirulaguntza ematea onartu du gaur, Hornidura Teknikoen Funtza indartzeko, gehienez 600.000 €-rekin, berme-sozietate horren abal-eragiketak erraztea helburu hartuta. Horrela, EAEko ETE-ek, enpresaburu indibidualek eta profesional autonomoek finantzatzeko dituzten aukerak areagotzen dira, arlo horretan ingurune ekonomikoan oraindik ere dauden zailtasunei aurre egiteko.

Elkargi EBB elkarrekiko berme-sozietate bat da, eta, eratu zenetik, bere bazkideei finantzaketa-iturrietarako sarbidea erraztu die, abalak emanez. Horrela, ekarpen handia egin du inbertsio-proiektuak gauzatzeko.

Elkargi EBBk egin ohi duen lan garrantzitsu hori kontuan hartuta, dirulaguntza hori onatzen eman da, euskal enpresa-sektorearen lehia-ingurunea hobetzeko Eusko Jaurlaritzaren politikarekin bat baitator.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 54,4 MILIOI EURO BIDERATU DITU IKASTETXE PUBLIKOETARAKO MATERIAL INFORMATIKOEN HORNIKUNTZA, INSTALAZIO ETA KONFIGURAZIORAKO ESPARRU-AKORDIORA

- **Euskal Hezkuntza Sistemaren ikasgela digitalak sortzeko prozesuari jarraipena ematera zuzenduko da**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntzak sailburuak proposatuta, esparru-akordio bat egitea, ikastetxe publikoen hezkuntza eta kudeaketa-beharrak asetzeko ezinbestekoa den material informatikoa hornitzeko, instalatzeko eta konfiguratzeko. Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planaren ildotik onartu da esparru akordio hau.

Hezkuntza Sailak Eraldaketa Digitalerako Plan horren barruan lortu nahi duen helburu nagusietako bat gaitasun digitalak sustatzea da, bai ikasleena, bai irakasleena. Horretarako, beharrezko elementuak dira irakasleen prestakuntza, ikastetxeei aholkularitza ematea teknopedagogia-gaietan edo digitalizazio-prozesuan laguntzea. Baina baita ikasgeletan teknologia eta ekipamendu digitalak sartzea ere, irakaskuntza, ikaskuntza, eta ebaluazio-prozesuetan erabil ditzaten.

Esparru-akordio honek hezkuntzaren digitalizatorako bultzada berri bat dakar, eta azken urteotan Euskadin ikasgelak digitalizatzeko prozesuan ematen ari diren pausoei jarraipena ematen die. 54,4 milioi euroko aurrekontu-aurreikuspenarekin, ikasgela digitalak osatzeko beharrezko material informatikoa eta ekipamendua erostea jasotzen du, hala nola: pantaila interaktiboak, ordenagailu eramangarriak eta mahai gainekoak, gelako web-kamerak, gelako haririk gabeko mikrofonoak edo mikrofono pertsonalak, dokumentu-kamerak, tableta digitalak edo kargarako armairuak.

2022an, Hezkuntza Sailak gela digital bihurtu ditu sare publikoko Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako gela guztiak (1.802 gela). Esparru-akordio berri honi esker, ikasgelak digitalizatzeko prozesua osatzen jarraituko da, goragoko mailetan: Lehen Hezkuntzako gainerako mailetan, DBHn eta Batxilergoan.

Gaur onartutako esparru-akordioak bi urteko indarraldia izango du, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da. Esparru-akordio honetarako bideratzen den zenbatekoaren erdia baino gehiago (% 52) Next Generation funts europarretatik dator.

Hezkuntza

14,5 MILIOI EURO IKUR ESTRATEGIAREKIN BAT DATOZEN BIKAINASUNEO IKERKETA-EKIMENEI BULTZADA EMATEKO

- **Dirulaguntzak ikerketako arlo estrategikoetara bideratzen dira, hala nola biomedikuntza, neurozientziak, superkonputazioa, komunikazio kuantikoa eta material aurreratuak**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, guztira 14,5 milioi euroko laguntzak ematea, Euskadiko ikerketa-zentroetan garatzen ari diren eta IKUR Estrategiarekin bat datozen bikaintasuneko ikerketari lotutako hainbat ekimeni laguntzeko.

Hezkuntza Sailak 2021ean abiarazi zuen IKUR 2030 Estrategia, Euskadiko zientzia-sarea indartzeko eta nitxo zehatzetan nazioarteko posizionamendua lortzeko. Estrategia horrek lau ikerketa-eremu estrategikoren aldeko apustu sendoa egiten du datozen urteetarako. Honako hauek dira: neurozientziak; teknologia kuantikoak; neutronika; superkonputazioa eta adimen artifiziala. Estrategia honek eta eremu horiek aukeratzeak mundu-mailako apustu bati erantzuten dio, erronka globalei erantzuteko duten ahalmenagatik; izan ere, nazioarteko zientzia-ekimen eta ikerketa-ildo nagusiekin bat datozen eremuak dira, eta Euskadik gaitasun bereziak eta posizionamendu ona ditu eremu horietan.

Estrategia honetan ezarritako helburuak indartu egingo dira bost ekintza zehatz hauetan egindako bultzadari esker. Honako dirulaguntza hauek jasoko dituzte:

Ikerbasqueren BIHAR Biomedikuntza Laborategia: milioi 1 euro Ikerbasque Fundazioari. Bihar Leioako Parke Zientifikoan kokatua dagoen ikerketa-gunea da. 2018an sortu zen, bikaintasuneko ikertzaile berriei erantzun azkarra eta malgua emateko. BIHAR laborategiari emandako bultzada ekonomiko berri, biomedikuntzaren arloan ikerketa-gune berriak sortuko dira, azken belaunaldiko ekipamendu zientifiko berriak kokatzeko eta ikerketa biomedikoaren arloan Ikerbasque ikertzaileek gidatutako ikerketa-talde berriak sortzeko aukera emango dutenak.

Basque Nanonauro Sarea (B3N): 4.115.000 euro Ikerbasque Fundazioari. *Basque Nanoneuro Network* (B3N) ekimenak, neurozientziaren eta nanozientziaren arteko bidegurutzean, metodo eta tresna elektronikoak, optikoak, kimiko molekularrak eta konputazionalak garatzea du helburu, zirkuitu neuronalen funtzionamendua ikertzeko, garuneko gaixotasunetarako terapia berriak garatzeko eta start-up eta enpresa txiki eta ertainak sortzeko. Nanozientziaren arloan aurrerapen teknologikoak erabiltzea du helburu orokorra, neurozientzietarako eta aplikazio biomedikoetarako teknologia berritzaileak garatzeko.

Euskadiko 2022-2024 Inbertsio Estrategikoen Planaren bidez gaur emandako 4,15 milioi euroko finantzaketari esker, helburu horiek lortzeko sarean lan egiten duten laborategien partzuergoa bultzatuko da, eta Donostian laborategi fisiko bat ezarriko da, “Basque NanoNeuro Hub”.

Superkonputazioa indartzea – Hyperion Euskadi: 1.355.000 euro DIPCri. Gaur emandako laguntzaren helburua Euskadi abangoardiako zientzian nazioarteko polo gisa kokatzea da, teknologia kuantikoen arloan inbertsio estrategikoak areagotuz, bai superkonputazio tradizionalen eta kuantikoan, bai I2Basque datu-sarean, bai komunikazio eta sensorika kuantikoetan.

Plan hori gauzatzeko bideetako bat Donostia International Physics Center (DIPC) ikerketa zentroa indartzea da, zientzia esperimentalean aurreratutako zentro berri bat emanez, DIPC baita Euskadiko bikaintasun-ikerketaren giltzarria Quantum gaietan. Ekimen honek ekipamenduan, konektibitatean, pertsonalean eta nazioarteko proiektuetan parte hartzeko inbertsioak biltzen ditu.

Hezkuntza Sailak eta Lehendakariak, berrikuntza-funtsaren bidez, 3 milioi euroko inbertsioa egin dute azken 5 urteetan ATLAS superkonputagailua eraikitzeko. Superkonputagailu hori Euskadiko indartsuena da, eta Estatu osoko 3 onenen artean dago. Fase berri honetan, superkonputazio-nodo berriak eskuratuko dira, superkonputagailu berri bat eraikitzeko aukera emango dutenak, HYPERION, Euskadiko komunitate zientifikoari merkatuko konputazio-teknologiarik modernoena eskainiko diona.

Komunikazio Kuantikoen Plan Osagarria: 5.810.617 euro DIPC eta Tecnaliari. Komunikazio kuantikoak sektore estrategikotzat hartzen dira bigarren belaunaldiko teknologia kuantikoen barruan. Sistema kuantikoak banaka manipulatzeko gaitasunean oinarritzen dira. Horren lekuko dira herrialde askotako Komunikazio Kuantikoen programak, hasi Estatu Batuetatik eta Txinaraino. Europan, Komunikazio Kuantikoena da European Quantum Flagship-en barruan bi esparru-programa (FPA) dituen eremu bakarra, eta, gainera, 10 urterako azpiegitura-programa bakarra du, sare kuantiko paneuropar bat (EuroQCI) sortzeko helburuarekin.

Gaur onartutako 5,8 milioi euroko dirulaguntzari esker, Komunikazio Kuantikoen garapenean proposatutako erronkak artikulatzeko Euskadik duen ekosistema bikaina indartuko da. Horrela, BERC zentroek, bereziki DIPCk, BRTA zentroek, ekimen honetan Tecnalia buru dela, UPV/EHUk eta, azken buruan, industriak, aspalditik bultzatzen dute Teknologia Kuantikoen aurrerabidea, eta askotariko arloak jorratzen dituzte, hala nola fisika kuantikoaren oinarritzko teoria, fotoien elkarlotze kuantikoaren azterketa, materiaren manipulazioa eskala atomikoan edo algoritmoen eta software kuantikoaren garapenari aplikatutako aurrerapen teorikoak, besteak beste.

Material Aurreratuen Plan Osagarria: 2.289.000 euro Tecnaliari. Material Aurreratuen Plan Osagarriaren helburu nagusia da Euskadin IKUR Estrategia indartzea, material aurreratuen modelizazioari eta simulazioari

aplikatutako superkonputazioa (HPC) sustatzeko, Eusko Jaurlaritzaren IKUR estrategian parte hartzen duten euskal ikerketa-zentroekin lankidetzan. Gaur onartutako laguntzari esker, propietate hobetuak eta/edo funtzionalitate aurreratuak dituzten materialen azterketan aurrera egin ahal izango da, besteak beste, grafenoa eta beste 2D material batzuk, material adimendunak eta material nanoegituratuak, energia, ingurumena, elektronika eta IKTak bezalako sektore estrategikoetan zuzenean aplikatu daitezkeenak.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 29,3 MILIOI EURO BIDERATU DITU ARABAKO ETA BIZKAIKO ESKOLA-GARRAIOA KONTRATATZEKO

- **Eskola-garraioko 199 ibilbide Bizkaian eta beste 140 Araban kontratatzeako lehiaketa publikoa irekiko du Hezkuntza Sailak**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Araba eta Bizkaiko Lurralde Historikoetan dauden Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetako eskola-garraio zerbitzua kontratatzeako baimena ematea. Zerbitzu hau bederatzi plaza baino gehiagoko edukiera duten ibilgailuekin eskainiko da –gidariarena barne dela- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH-ko ikasleei zuzenduta.

- Arabako Lurralde Historikoan 10.692.756 euro bideratuko dira, eskola garraioko 140 ibilbide kontratatzeako. Ikasturte honetan, Arabako ikastetxe publikoetan ikasten duten 3.040 neska-mutil garraiatzen dira egunero, guztira 39 ikastetxeri zerbitzua ematen dieten 140 ibilbideetan.
- Bizkaiko kasuan, zenbatekoa 18.634.944 eurokoa da, 199 ibilbide kontratatzeako. Lurralde horretan, egunero, 102 ikastetxe publikotan ikasten duten 7.614 ikasle garraiatzen dira.

Ibilbide horietako bakoitzak lote bat osatzen du (kontratu bat). Kontratuek 20 hilabeteko iraupena izango dute, uztaila eta abuztua kontuan hartu gabe, eta luzatzeko aukera izango da.

Ibilbide hauen esleipenerako lehiaketan parte hartu nahi duten garraio enpresek, zerbitzua garatzeko beharrezko den administrazio-baimena izan beharko dute. Horrez gain, eskola-garraioko eta adin txikikoen garraiorako segurtasun baldintzei buruz indarrean den araudiak ezartzen dituzten gutxieneko baldintzak ere bete beharko dituzte.

Eskola-garraioko zerbitzu osagarriak hezkuntzarako sarbidearen unibertsaltasuna bermatzen du. Hezkuntza Sailak kudeatzen duen eskola garraioa erabiltzeko eskubidea dute bizilekutik ikastetxera 2 kilometro edo gehiagoko distantzia duten ikasleek, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan. Gutxieneko distantzia hori 4 kilometro edo gehiagokoa izan beharko da DBHko bigarren zikloan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan, eta 500 metrokoa besterik ez mugikortasun urriko ikasleen kasuan.

Lizitatu beharreko ibilbide kopuru altua aintzat hartuta, eta enpresa txiki eta ertainei kontrataziorako sarbidea errazteko helburuz, lurralde historiko bakoitzeko kontratazio-espeditente bat lizitatuko da. Gipuzkoako zerbitzuaren kontratazioa datozen asteetan onartuko da.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 8 MILIOI EUROAN HANDITU DU 2022-2023 IKASTURTAEAN UNIBERTSITATEZ BESTEKO BEKETARA ZUZENDURIKO DIRU KOPURUA

- **Derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etapetan ikasten dabiltzan eta bekaren onuradun diren ikasleek 400 euroko laguntza osagarria jasoko dute**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzen deialdia 8.056.823 euroan handitzea, 2022-2023 ikasturtean.

Diru kopuru berri hau Hezkuntza Sailak ikasturte honetarako onartutako beka deialdiaren zenbatekoari gehitzen zaio. 2022-2023 ikasturterako beka deialdia 62,5 milioi euroko kopuruarekin onartu zen, joan zen ekainaren 14an.

Handitze honi esker, ikasturte honetan bekaren onuradun diren ikasleek, baldin eta derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etapetan badaude (Batxilergoan edo Lanbide Heziketan, gehien bat), 400 euroko laguntza osagarria jasoko dute.

Aurreko ikasturtean, guztira 115.182 ikasle izan ziren Hezkuntza Saileko unibertsitateaz kanpoko beka eta laguntzen deialdiaren onuradun. Horietatik, 19.671 derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapetako ikasleak izan ziren.

Hezkuntza

160.000 EUROKO DIRULAGUNTZA EUSKAMPUS FUNDAZIOARI

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 160.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea Euskampus Fundazioari. Laguntza hau zientzia eta teknologia sozializatzeko eta zabaltzeko proiektu bat garatzeko bideratuko da.

Euskampus Fundazioaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko eraldaketa sozial, ekonomiko eta kulturalaren prozesuan trakzio-elementu gisa jardutea, nazioartean garrantzia izango duen prestakuntza, ikerketa, transferentzia eta berrikuntza-gunea eratuz eta nazioarteko dimentsioa izango duen campus akademikoa sendotuz.

Euskampus Fundazioa Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak Kultura Zientifikorako eta Berrikuntzarako Unitate (UCC+i) gisa kreditatuta dago 2012tik. UCC+i horretan, UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak du lidergoa (UPV/EHUko erakundea da Katedra hau, zientziak gizartean duen ezagutza eta prestigioa sustatzeko lanean diharduena). Euskampus eta UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak erakunde bakoitzaren helburuak sendotzan dituen harreman sinbiotikoa dute, eta harreman hori funtsezko faktorea da Euskampusen eta aipaturiko Katedraren jarduera-programak garatzeko.

UCCIk honako jarduera hau egingo du: alde batetik, eduki zientifikoak hedatzea UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak dituen bitarteko eta formatuen bidez, hala nola Blogak, Sare Sozialak, App Katedra eta Zientzialetter, eta, bestetik, komunikazio zientifikoaren arloan aitzindaria den proiektu bat garatzea: Generoa eta Zientziaren Komunikazioa programa. Programa horren helburua da genero-ikuspegidun komunikazio zientifikoa hobetzea, hainbat estrategiaren bidez.

Hezkuntza

200.000 EUROKO DIRULAGUNTZA BC3 IKERKETA ZENTROARI, K.LAB LABORATEGIAREN BITARTEZ TEKNOLOGIA TRANFERITZEA INDARTZEKO

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Hezkuntza sailburuak proposatuta, erabaki du 200.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea BC3 - *Basque Centre For Climate Change* bikaintasuneko ikerketa zentroari, K.Lab (*Knowledge Modelling Environment*) laborategiaren bitartez teknologia transferitzea indartzeko.

2008an sortu zenetik BC3-k egin duen lanari esker, ARIES plataforma (*Artificial Intelligence for Ecosystem Services*) asmatu eta eraiki ahal izan da. Teknologia horrek sarean eskuragarri dauden datuak eta semantikaren eta *machine reasoning* delakoaren bidez modelizatzeko osagaiak integratzen ditu. Plataforma honen azpiko softwareak (K.Lab izenekoak) datuak integratzeko prozesu osoa erabil dezake modelizazio mota ugariarekin, aldaketa konplexuak aurreikusteko. Kode irekiko K.Lab softwareak datu eta eredu egokienak hautatzeko aukera ematen du, hodei-teknologia erabiliz eta datu-paradigma ireki bati jarraituz: era berean, lortutako ezagutzak irekiak dira eta gizarte osoarentzat eskuragarri daude, eta ondorengo kalkuluetarako oinarri bihurtzen dira, etengabe hazten ari den ezagutza-base bati ekarpena eginez.

BC3 - Basque Centre For Climate Change

BC3 – Basque Centre for Climate Change 2008n abiatutako bikaintasuneko ikerketa zentroa da (BERC), Eusko Jaurlaritza eta UPV/EHUren artean sortutakoa, klima-aldaketaren arrazoen eta ondorioen inguruko ezagutza garatzeko eta gai horiei buruzko ikerketan aurrerapenak bultzatzeko helburuarekin. Zentroa, beraz, nazioarteko ikerketan erreferente bihurtzeko bokazioarekin jaio zen, ezaguera zientifikoari ekarpenak egiteko gaitasunagatik zein Euskadiko ikerketa eta zientzia sistemara lehen mailako ikertzaileak erakartzeko gaitasunagatik ezaguna.

17,5 MILIOI EURO GEHIAGO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN EKARPEN ARRUNTERAKO

Gobernu Kontseiluak onartu du, Hezkuntzako sailburuak proposatuta, Euskal Herriko Unibertsitatearen ekarpen arrunta 17.528.850 euroan handitzea, ekarpen arruntari egotzi dakizkiokeen langile-gastuetan sortutako egiturazko beharrei aurre egiteko. Ekarpena handitzeko arrazoen artean daude: ordainsarien igoerak; Euskadiko Administrazioako langileen aurreikuspen-plana kudeatzen duen Itzarri BGAEri egindako ekarpenen igoerak; edo Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarrien igoera.

Hezkuntza

775.000 EURO ENKARTERRI ESQUALDEA LEHENERATZEKO ETA BERRESKURATZEKO, LANBIDE HEZIKETATIK ABIATUTA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntzako sailburuak proposatuta, Enkarterri eskualdean dauden San Viator eta Maristas San Miguel Lanbid Heziketako itunpeko ikastetxeei 775.000 euroko dirulaguntza zuzenak ematea.

Laguntza horiek ekipamendu eta azpiegitura teknologikoki aurreratuak erosteko finantzaketara bideratuko dira, bai eta suspertzen ari diren sektoreetan enpresak sortzeko eta pertsonak kualifikatzeko eta birkualifikatzeko ekimenak abiaraztera ere, eskualdea berroneratzea eta berreskuratzea bultzatzeko. Bi ikastetxeek eskualde hori biziberritzeko eta berreskuratzekeo estrategikotzat jotzen diren esparru edo sektoreei lotutako heziketa-zikloak ematen dituzte.

Emandako zuzeneko dirulaguntza (700.000 euro San Viator LHIPIrentzat eta 75.000 euro Maristas San Miguel HLBHIPentzat) gastu hauetarako erabili beharko da:

- Ekipamendu eta azpiegitura teknologikoki aurreratuak erosteko. Erosketa hori pertsonak prestatzeko eta trebatzeko helburuz egin beharko da, ingurune erabat digitalizatuetan eta automatizatuetan lan egiteko beharrezkoak diren konpetentzia teknikoak eta zeharkakoak eskura ditzaten, eta, era berean, eskualdeko sektore estrategikoen beharrezko eraldaketa digitala bultzatzeko.
- Prestakuntza eta ekintzailtza-programen gastuak, suspertzen ari diren sektoreetan.

Dirulaguntza horiek Eusko Jaurlaritzaren Berpiztu Programaren barruan kokatzen dira. Programa horren helburua da gizarte-egoera ahuleko eskualdeetan edo lehentasunezko jarduera-eremuetan (kasu honetan, Enkarterrin) proiektu bultzatzaileak dinamizatzea.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

AKORDIOA URDUÑAKO BI AUZO KALTEBERAREN HIRI-BERRONERATZERAKO ZUZENEKO DIRULAGUNTZA EMATEKO

Gobernu Kontseiluak astearte honetan eman du oniritzia Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak Orduñako Udalarekin hitzarmena sinatzeko, helburua izanik 1,65 milioi euroko zuzeneko dirulaguntza ematea Landatas eta Dolores Madaria auzoen hiri-berroneratzerako; proiektuak 126 etxebizitza barne hartzen ditu.

Urduñako proiektuak Landatas eta Dolores Madaria auzoen berroneratzea bultzatuko du, eta etxebizitzaren irisgarritasuna eta energia-efizientzia hobetzeko jarduketak barne hartuko ditu. Ekintza horiek guztiak auzoetako bulegoen bidez gauzatuko dira, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak auzoen hiri-berroneratzerako sustatutako ereduari jarraituz. Eredua Euskadi osoko 21 udalerritara hedatuko da.

Zuzeneko laguntza hori egoera ahulean dauden eskualdeak edo lehenetsuneko jarduera-eremuak bultzatzeko Berpiztu programaren barruan 180 milioiko inbertsioa egiteko aurrekontu-programan barne hartuta dago, eta horietatik 14 auzo kalteberen hiri-berroneratzea sustatzeko dira. Aiaraldeak, orotara, 3,5 milioi euro jasoko ditu.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

EUSKADIKO HIRIGINTZA-DISEINUA ETA ARKITEKTURA GARAIKIDEA SUSTATU ETA ZABALTZEKO LAGUNTZEI BURUZKO AGINDUA ONARTU DA

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Euskadiko hirigintza-diseinua eta arkitektura garaikidea sustatu eta zabaltzeko Iñaki Arriola Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren aginduari. Laguntzek 300.000 euroko aurrekontua dute, eta aldi baterako dibulgazio-erakusketak, hitzaldiak eta lantegiak antolatzen edo argitalpenak, dokumentalak edo aplikazio informatikoak edo web-orriak sortzen zuzenduta daude.

Agindu honetan jasotako jarduketak MUGAK Euskadiko Nazioarteko Arkitektura Biurtekoan, 2023ko udazkenekoan, aurkeztuko dira.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK ZENBAIT LANKIDETZA-HITZARMEN BERRITU DITU GIZARTE-ERAKUNDE BATZUEKIN, BABESPEKO ZENTROETAN GAZTE ETA ADINGABEEI ASISTENTZIA EMATEKO

- 7.974.371 euroko kostua, guztira
- Luzatu da Barakaldoko familiako elkargunearen zerbitzua kudeatzeko hitzarmena

Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio zenbait erakunderekin eta hezkuntza-elkarterekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenak **2023. urterako luzatuko direla**, hiru lurraldeetan adingabeen babespeko zentroetan asistentzia-neurriak emateko; kostua, guztira, 7.794.371 eurokoa izango da. Era berean, Sailak **Barakaldoko** Udalarekin **familiako elkargunearen zerbitzua** kudeatzeko hitzarmena luzatuko du.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta **Berritzu** hezkuntza-elkartearen arteko lankidetzak-hitzarmena 2023rako luzatuz, **Gipuzkoako eguneko zentroarentzako** asistentzia bultzatzen da. Eguneko zentroari asistentzia emateko edo asistentziarako betebeharra duten zaintzapeko askatasunerako neurriak gauzatzeko akordioa da. Konpentsazio ekonomikoa 35.398 euroan finkatu da, hilabete oso bakoitzeko, 2023an; urtean, guztira, 424.777 eurokoa da.

Eusko Jaurlaritzaren eta **Irsearaba - Gizarte Inklusiorako Institutuaren** arteko lankidetzak-hitzarmenak adingabeen epaitegiek **Arabako** ezarritako ingurune irekiko neurriak gauzatzeko bultzatzen du (zaintzapeko askatasuna, gizarte- eta hezkuntza-eginkizunak betetzea, tratamendu ambulatorioa, gizartearentzako lan egiteko zigorra eta asteburuko egonaldiak etxean bertan). Urteko konpentsazio ekonomikoa, guztira, 253.410 eurokoa da.

Eusko Jaurlaritzak eta **Euskadiko Birgizarteratze Institutuak** sinatutako hitzarmenaren luzapenaren **–Aramaioko, Donostiako eta Vitoria-Gasteizko Txema Finez hezkuntza-zentroetan adingabe eta gazteak gizarteratzeko eta egoitza-harrerarako neurriak gauzatzeko–** ondoriozko kopuru ekonomikoa 2.260.635 eurokoa da; 188.386,25 euro hilabete oso bakoitzeko, 2023. urtean.

Berritzu hezkuntza-elkartearen lankidetzak-hitzarmena luzatu egingo da, 2023ko abenduaren 31ra arte, Bizkaiko **Urgozo** hezkuntza-zentroan adingabe eta gazteen egoitza-harrerako eta gizarteratzeko neurriak gauzatzeko, eta kopuru ekonomikoa 1.123.813,8 eurokoa izango da **–93.651,15 euro hilabete bakoitzeko–**.

Gaztaroan Ekin elkartearekin **Arabako Andoiu/Gorbeia hezkuntza-zentroan** neska adingabe eta gazteen egoitza-harrerarako eta gizarteratzeko neurriak

gauzatzeko luzatutako hitzarmenak erregimen irekian, erdi-irekian edo itxian – terapeutikoak barne– kautela-neurri bat edo neurri irmo bat bete behar duten 16 neska adingabe eta gazteren egoitza-harrerarako eta gizarteratzeko baldintzak arautzen ditu, edo hezkuntza-taldeko bizikidetzak-neurriak edo adingabeen epaitegiek ezarrita hezkuntza-taldean egoteko asteburuko egonaldia. Konpentsazio ekonomikoa 145.151,9 euroan finkatu da, hilabete oso bakoitzeko, 2023an; urtean, guztira, 1.741.823 eurokoa da.

Eusko Jaurlaritzak eta **Berriztu** hezkuntza-elkartearen artean **Arratia hezkuntza-zentroan** adingabe eta gazteen egoitza-harrerarako eta gizarteratzerako neurriak gauzatzeko sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren luzapenak honako hauek arautzen ditu: iraupen laburreko erregimen irekian, erdi-irekian edo itxian –terapeutikoak barne– barneratzeko kautela-neurri bat edo irmo bat bete behar duten 20 adingaberen edo gazteren egoitza-harrerarako eta gizarteratzeko baldintzak, edo hezkuntza-taldeko bizikidetzak-neurriak edo hezkuntza-taldean egoteko asteburuko egonaldia. Kostu ekonomikoa 2.169.913 eurokoa da

Barakaldoko Familiako Elkargunea

Barakaldoko udalak ere luzatu egin du epaileak agindutako kontsultaren bidezko Barakaldoko **familiako elkargune-zerbitzua** kudeatzeko hitzarmena. Urtean 140.000 euro dira, 2023. urterako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EGIA JAKITEKO ETA BAKEAN BIZITZEKO ESKUBIDEA EDO IKERKETAK ELANKIDETZAK BABESTUKO DITUEN EKIMEN SOLIDARIOEN ARTEAN

- **Gaur, Gobernu Kontseiluak onartutako garapenerako lankidetzaren proiektuak 770.000 euro jasoko dituzte guztira**

Gaur, Giza Elkartasunaren Nazioarteko Egunean, Gobernu Kontseiluak zuzeneko lau dirulaguntza onartu ditu Guatemala, Honduras, El Salvador eta Kolonbiako erakunde eta biztanleekin lan egiten duten erakundeentzat. Guztira, 770.000 euro jasoko dituzte. eLankidetzak-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailean dagoena, lagundu nahi du Hegoaldeko herrialdeetan justizia soziala sustatzen, egia argitzen, giza eskubideak babesten edo gizarte mugimenduen partehartzea areagotzen, besteak beste.

eLankidetzak dirulaguntza horiek ematen ditu bere apustu estrategikoak sendotzeko; adibidez, giza eskubideak babestea edo gizarte erakundeen indartzea.

Giza eskubideak, bakea eta demokrazia

Emango diren dirulaguntzetako bi Erdialdeko Amerikan justizia, egia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak lantzen dituzten erakundeak indartzeko erabiliko dira. Horrela, Swisspeace Bakerako Suitzar Fundazioak 200.000 euro jasoko ditu Guatemala, Honduras eta El Salvadorreko giza eskubideen erakundeei laguntzeko arxiboen arloan egiten duten lanean. Eginkizun horren balioa ezinbestekoa da giza eskubideen urraketen biktimek justizia izan dezaten. Zentzu horretan, eLankidetzak 200.000 euro gehiago emango dizkio Guatemalako Auzitegiko Antropologiako Fundazioari (FAFG). Erakunde horrek diziplina anitzeko ikerketak egiten ditu Erdialdeko Amerikako barne gatazka armatuaren biktimek identifikatzeko.

Bestalde, Kolonbiako Bake Akordioa sinatu eta ia sei urtera, gehien sufritu zuten tokietako biztanleek gerra dinamiketan jarraitzen dute, talde armatuen, legez kanpoko ekonomien, erauzketa-industria eta kontrol sozialaren ondorioz. Azken hilabeteotan, Vivamos Humanos Korporazioak Koordinakunde Humanitarioa bultzatu du gutxieneko baldintza humanitarioak eta bakea lortzeko. Korporazio horrek 150.000 euro jasoko ditu egonkortzeko eta indarkeria gehien bizi duten lurraldeetako 14 emakume eta gizon liderrek parte hartuko duten goi-bilera bat antolatzeko.

Azkenik, eLankidetzak 220.000 euro bideratuko ditu Demokraziarako Ikasketa Zentrorra (CESPADera). Hondurasko testuinguru berriak aukera ematen du eragin politikorako guneetan parte-hartze handiagoa izateko, eta, horregatik, zentroak ikerketak eta azterlanak egingo ditu, Hondurasko erakundeek eta

gizarte mugimenduek nekazaritza eta ingurumen gaietan informazioa izan dezaten politikan eragin handiago izateko. Ikerketa horiek, adibidez, estraktibismoa edo genero ikuspegia jorratuko dituzte.

Nazioarteko elkartasuna

eLankidetzeta-Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak Eusko Jaurlaritzako nazioarteko elkartasuna bideratzen du, eta Euskadiko zein nazioarteko eragileekin batera, giza garapen jasangarria eta pobrezia eta desberdintasunen aurkako borroka sustatzen ditu. Besteak beste, bere lana da laguntzea gizartea eraldatzen, krisi humanitarioei erantzuten, pobretutako herrialdeetako eragileak indartzen, euskal gizartea sentsibilizatzen edo Hegoaldeko eta Euskadiko aktoreen artean ezagutza trukerako ekimenak bultzatzen.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 13 MILIOI EURO BANATUKO DITU DIRULAGUNTZETAN EAEKO IA 70 HEDABIDEREN ARTEAN

Eusko Jaurlaritzak 13.694.000 euro bideratu ditu aurten Euskadiko hedabideen sektoreari zuzendutako dirulaguntzetara. Batetik sei milioi euro bideratu dira Euskal Autonomia Erkidegoko orotariko komunikabideetara edo Euskadin lan egiten duten hedabideetara, horien sostengu ekonomikoan eta desinformazioaren aurkako borrokan laguntzeko. Bestetik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak hiru urtean 12,7 milioi euro emango dizkie euskara hutsezko hedabideei (2019-2021 deialdian baino % 5 gehiago) euskararen normalizaziorako eta erabilera sustatzeko funtsezko eragile diren aldetik.

Eguneroko informazioa ematen duten komunikabideak

Eusko Jaurlaritzak 6 milioi euro banatuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko orotariko komunikabideei edo Euskadin lan egiten duten hedabideei zuzendutako dirulaguntzetan. Deialdi honek kontuan hartzen du komunikabide profesionalek egunero egiten duten lana herritarren informazio egiazkoa eta egiaztatua izateko eskubidea bermatua egon dadin. Interes orokorreko informazio-lan hori are beharrezkoagoa eta nabarmenagoa izan zen Covid-19aren pandemian. Baina, hain zuzen, une horretan, komunikabideek diru-sarreraren beherakada handia izan zuten, bai salmentengatik, bai publizitateagatik.

Honako hauek dira dirulaguntza jasoko duten hedabideak:

HEDABIDEA	DIRULAGUNTZA
EL CORREO	1.783.281,73 €
DIARIO VASCO	876.160,99 €
SER	643.962,85 €
DEIA	547.987,62 €
GARA	309.597,52 €
BERRIA	287.925,70 €
NERVIÓN-GORBEA	278.637,77 €
COPE	201.238,39 €
NOTICIAS DE GIPUZKOA	182.662,54 €
ONDA CERO	142.414,86 €
DIARIO DE NOTICIAS DE ÁLAVA	139.318,89 €
ELDIARIO.ES	133.126,94 €
GRUPO TELEBILBAO/TELEDONOSTIA/TELEVITORIA	126.934,98 €

ONDA VASCA	83.591,33 €
GRUPO INFOSARE	49.535,60 €
HAMAICA	43.343,65 €
HERRI IRRATIA - RADIO POPULAR	37.151,70 €
HITZA.EUS/ATARIA.EUS	34.055,73 €
TELE7	34.055,73 €
GOIENA	30.959,75 €
RADIO 7	18.575,85 €
BIZKAIA IRRATIA	15.479,88 €
GUZTIRA	6.000.000 euro

Euskara hutsezko hedabideak

Euskara hutsezko hedabideen deialdian Kultura eta Hizkuntza Politika sailak guztira 45 komunikabide lagunduko ditu diruz. Urte anitzeko deialdia da (2022-2024), 2017an euskarazko hedabideen sektorearekin lortutako akordioa oinarri duena, eta 2022ko martxoan eguneratua. Hiru urtean 12,7 milioi euro esleituko dira, urtero 4.258.000 euro. Honako multzotan banatzen dira:

1. Euskadi osora zuzendutako argitalpenak edo aldizkariak, orotarikoak zein espezializatuak.

HEDABIDEA	DIRULAGUNTZA
EDICIÓN DE LA REVISTA EUSKAL HERRIKO NATURA	66.570
GO!AZEN ALDIZKARIA	30.000
BERTSOLARI ALDIZKARIA ETA BERTSOLARI.EUS 2022-2024	123.000
KARMEL	45.000
GAZTEZULO	398.078
EKAI CENTER ALDIZKARIA	100.712
ELHUYAR ALDIZKARIA	131.485
XABIROI KOMIKIA	141.374
GAZTEON KZ	221.578
EKONOMIAREN KZ	264.541
AIZU! ALDIZKARIA	251.212
eWorld aldizkaria - DIGITAL GENERATION	135.774
BIDAIARI ALDIZKARIA PAPER+ON LINE	273.528
GAUR8 ASTEKARIA+ON LINE	633.682
IRRIA ALDIZKARIA	231.303
Jakin aldizkaria paperean eta web-gunean	215.668
ARGIA Komunikazio proiektua	1.545.480
111 ALDIZKARIA	60.290
EGAN aldizkariaren argitalpene	28.461

Gazteberri Aldizkaria	471.750
±18 Presta ezazu zure etorkizuna	46.621
BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA	75.750
UZTARO, Giza eta Gizarte Zientzien Aldizkaria	71.595
Unibertsitateko aldizkaria	113.186
HIK HASI EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA	193.205
HAZI HEZI ALDIZKARIA	115.157
GUZTIRA	5.985.000 euro

2. Tokiko Irratiak:

HEDABIDEA	DIRULAGUNTZA
ARABA IRRATIA SL	157.792
ARRATE IRRATIA SL	302.709
ASOCIACION ONG PAUSU MEDIA ASOCIACION PARA EL DESARROLLO DE LAS	189.180
EUSKAL IRRATI ZERBITZUAK SL	553.514
ZADORRA IRRATIA ELKARTEA	105.000
GUZTIRA	1.308.195 euro

3. Tokiko telebistak:

HEDABIDEA	DIRULAGUNTZA
BILBO HANDIA IKUSENTZUNEZKOAK SA	935.532
BUSTURIALDE'KO IRRATI TELEBISTA SL	449.664
DONOSTIALDEA IKUSENTZUNEZKOAK SA	935.532
GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA, KOOP. E.	818.400
GOIHERRIKO IKUSKARI SL	520.329
TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL	520.329
UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA SKOOP ELKARTEA	340.464
GUZTIRA	4.520.250 euro

4. Hedabide digitalak:

HEDABIDEA	DIRULAGUNTZA
MONDRABERRI	30.000
URIOLA	57.000
Sustatu	87.862
TTAP aldizkari digitala	296.557
ZUT	100.256
zarauzkohitza.eus	251.778
ZUZEU orainkaria	137.297
GUZTIRA	960.750 euro

Euskara hutsezko hedabideen sektorea sendotzen eta hauei beraien jardunean laguntzeko helburu berarekin, deialdi honi gehitu behar zaio Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Berriari ematen dion zuzeneko dirulaguntza izenduna, EAE osoan estaldura duen euskarazko egunkari orokor bakarra den aldetik. Berriak jasotzen duen dirulaguntza 2.436.000 milioi eurokoa da urtean (7.308.000 euro 2022-2024 bitartean).

Azkenik, hirugarren laguntza-multzo batean, nagusiki gaztelaniaz argitaratzen duten komunikabideei zuzendutako dirulaguntzen deialdia dago, eskaintzen dituzten edukietan euskararen presentzia sustatzea helburu duena. Deialdi horretara milioi bat euro bideratzen da.

Kultura eta Hizkuntza Politika

**EUSKO JAURLARITZAK 760.000 EURO GEHIAGO BIDERATUKO DITU,
3,19 MILIOI EURO GUZTIRA, EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOAK
EKOIZTERA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuarekin sinatutako hitzarmen baten bidez, 760.000 euro gehiago bideratuko ditu euskarazko ikus-entzunezkoak ekoiztera. Horrela, ikus-entzunezko produkzioarako deialdiaren guztizko zenbatekoa 3.190.000 eurokoa izango da.

Gobernu Kontseiluak 2.430.000 milioi euro onartu zituen martxoan, iaz baino 70.000 euro gehiago, ikus-entzunezko proiektuak bultzatzeko. Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuarekin sinatutako akordioaren bidez, zenbateko hori 760.395 euro handituko da, eta kopuru hori osorik euskarazko jatorrizko bertsioa duten proiektuetarako izango da. Horrela, 3.190.000 euroak honela banatuko dira:

- **Film luzeen produkzioarako laguntzak: 2,93 miloi euroko** aurrekontua honela banatuko da:
 - **Zinemarako diren fikziozko film luzeak ekoizteko laguntzak: 1.620.395 euroko** aurrekontua 60 minutu edo gehiagoko iraupena duten eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako diren obrak finantzatzeko erabiliko da.
 - **Aurrekontu txikiko zinemarako diren fikziozko film luzeen produkzioarako laguntzak:** Aurrekontua 300.000 euro baino txikiagoa duten lanak finantzatzeko dira beti ere jatorrizko bertsioa euskarazkoa badute. Guztira **250.000 euroko** aurrekontua du atal honek.
 - **Zinemarako diren animaziozko film luzeen produkzioarako laguntzak: 600.000 euro** bideratuko dira edozein hizkuntzatan dauden eta zinemarako diren animaziozko film luzeak egitea sustatzeko.
 - **Sortze-dokumental film luzeen produkzioarako laguntzak:** Edozein hizkuntzatan dauden sortze-dokumental luzeak egitea sustatuko da. Errealitatetik hartutako gaia duten proiektuak izan beharko dira, originalak eta gai zehatz bati buruzko ikerketa edo azterlana beti ere gutxienez merkataritza-ordu beteko iraupena dutenak eta telebista edo zinemarako direnak. Laguntza modalitate honetarako aurrekontua **460.000 eurokoa** da.
- **Film laburren produkzioarako laguntzak:** Edozein hizkuntzatan dauden eta zinemarako diren film laburrak egitea sustatuko da beti ere film laburtzat hartuta edozein euskarritan egindako 30 minutu baino gutxiagoko lanak. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak **260.000 euro** bideratuko ditu laguntza hauetara.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 1,2 MILOI EUROTAN HANDITUKO DU GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAN PARTE HARTZEA ARTELANAK EROSTEKO HELBURUAREKIN

Gobernu Kontseiluak gaur onartu duenez Eusko Jaurlaritzak 1.249.499 euro gehiago bideratuko ditu “Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporánea de Bilbao, S.L.” erantzukizun mugatuko sozietatearen kapital-gehikuntzara. Sozietatearen helburua edozelako arte-lan eta sorkuntza motak eskuratu eta ustiatzea da, baita arte-erakusketak eta erakustaldian antolatzea ere.

Urrian egindako ez-ohiko batzar orokorrean onartu zen 2022an Bilboko Guggenheim Museoaren bilduma propioko eskuratze-programari ekiteko kapital gehikuntza bat. Horrela museoaren funtsa handitzen da eta, era horretan, museoak gizarteari egiten dion ekarpena indartzen da. Horrela Eusko Jaurlaritzak 1,2 milioi euro gehiago bideratuko ditu helburu horretara. Gehikuntzaren ondoren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sozietatearen kapitalean 59,4 milioi euroko parte hartzea izango du, hau da, orain arte bezala kapital sozialaren %50a. Gainontzeko %50-a Bizkaiko Foru Aldundiarena da.

Gehikuntzaren ondorioz “Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporánea de Bilbao, S.L.” sozietatearen estatutuen 6.artikulua ere moldatuko da kapital sozialaren zifra berria zehazteko.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

GOBERNU KONTSEILUAK AIARALDEKO LJE ONARTU DU TURISMOAREN ARLOAN; MILIOI 1 EUROKO ZUZKIDURA DU

Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 1ean onartu zuen Aiaraldeko berehalako Jarduketa Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko Lehentasunezko Jarduketa Eremuetako bat gisa. Planean zehaztutako trakzio-proiektuen artean, Aiaraldeko LJEan ezarri beharreko **“turismo-zerbitzuen eskaintza integratua garatzea”** dago.

Ezohiko ekimen horren barruan kokatutako jarduketak Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmen baten bidez gauzatuko dira. Hitzarmen horren **helburua da** jarduketa integral bat sortzea baliabide turistikoei balioa emateko, baita Aiaraldeko turismo jasangarriaren eskaintza antolatzeko plan bat egitea ere, turismora bideratutako ekitaldi bereziak zehazteko.

Horretarako, 8 jarduketa desberdin egitea aurreikusten da:

- 1.- **Turismo-sektorea sustatzea**
- 2.- **Txakolinaren ibilbidea**
- 3.- **Artisau-ibilbide gastronomikoa**
- 4.- **Museoen sarea**
- 5.- **Dorretxeen ibilbidea**
- 6.- **Kexaako monumentu-multzoko elementu publikoetan jarduketak**
- 7.- **Ekitaldi bereziak**
- 8.- **Eskualdearen marka turistikoa sortzea**

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

GOBERNU KONTSEILUAK EUSKADIKO MERKATARITZA-SEKTOREKO ELKARTEEKIN LANKIDETZA-HITZARMENAK LUZATZEA ONARTU DU, SEKTORE-ESTRATEGIAK GARATZEKO

Jaurlaritzaren Kontseiluak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren proposamena onartu du, CECOBI, Bizkaidendak, Arabadendak eta Aenkomer merkataritza-sektoreko elkarteekin 2023rako hitzarmenak sinatzeko programak luzatzeko. Hitzarmen horien xedea da erakunde horien egitura finantzatzea eta gobernuarekin lankidetzak aktiboa izatea estrategia sektorialak garatzeko eta merkataritza-sektorea sustatzeko.

Luzapen-gehigarri horrek Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak elkarte horiekin duen lankidetzak esparruari eustea dakar, lehiakortasuna hobetzeko eta euskal merkataritza-sektorea bultzatzeko eta merkataritza-elkarte horiek sektoreko eragile aktibo gisa sendotzeko.

Gehigarriak ez du eduki ekonomikorik, EAEko 2023rako Aurrekontu Orokorrak onartu ondoren dagokion emakida-aginduan ezarritakoa izango baita.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

JAURLARITZAREN KONTSEILUAK DIRU-ZUZKIDURA BAT ONARTU DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MERKATARIEN ELKARTEEN ERROLDA EGITEKO ETA EGUNERATZEKO

Jaurlaritzaren Kontseiluak zuzeneko dirulaguntza bat onartu du, 48.000 eurokoa, Euskadiko merkataritza-ganberentzat. Dirulaguntza horren xedea da, batetik, merkataritza-elkarteen errolda egitea eta eguneratzea, eta, bestetik, erroldaren kudeaketa optimizatzeko azterlan bat egitea. Azterlanak informazioa eguneratzeko eta erregistratzeko prozesu osoa eta digitalizazioa baloratuko ditu, eraginkortasunari eta eraginkortasunari dagokienez hobetzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Errolda egitea Euskadiko hiru lurralde historikoetako merkataritza-ganbera ofizialei dagokie. Eragiketa horren helburuak dira, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak merkataritza-elkarteei buruzko informazio zehatza emango dion tresna bat izatea. Baita osatzen duten kolektiboen ordezkagarritasuna eta benetako ordezkariak ere. Horrekin, sailak tresna bat du bere politika publikoak egiteko. Erroldan inskribatuta daude beren helburuen artean merkatarien interesak defendatzea duten elkarte, federazio eta konfederazioak, beren jardura Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen dutenak eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak. Elkarteekin Erroldan izena ematea ezinbesteko baldintza da Jaurlaritzaren laguntza-lerro eta -programetan parte hartu ahal izateko.

COVID19aren pandemiarekin, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak zuzeneko laguntza garrantzitsuak jarri zituen abian, osasun-krisiaren eragina eta eragindako sektoreetan dituen ondorio ekonomikoak arintzeko. Horrek agerian utzi du merkatarien elkarteek zeregin garrantzitsua dutela hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako merkataritza-enpresei eta zerbitzu-enpresei laguntzeko. Gehienak autonomoak eta enpresa txikiak. Gainera, egoera horren ondorioz, saltokiek interes handiagoa dute elkartzeko, eta orain arte asoziazionismoari buruz erabiltzen ziren datuak aldatu egin dira. Errealitate berri horrek zentsua eta horren balorazioa aztertzea eskatzen du, eta gure Erkidegoko elkarteekin egoeraren ezagutza hobetzeko eta adierazgarritasun-maila baloratzeko tresna baliagarri bat izateko beharra nabarmentzen du.

Seguridad

EL CONSEJO DE GOBIERNO REGULA EL ACCESO, FUNCIONES Y RÉGIMEN APLICABLE AL PERSONAL FACULTATIVO Y TÉCNICO DE LA ERTZAINZA

- Es una escala a la que se accede solo con determinadas titulaciones académicas para dar apoyo a la Ertzaintza en tareas muy técnicas que requieren de un nivel alto de especialización
- El desarrollo de esta escala responde a la necesidad de incorporar perfiles muy especializados que puedan dar respuesta a los nuevos retos de la seguridad pública

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el nuevo *Decreto sobre el desarrollo de la Escala de personal facultativo y técnico de la Ertzaintza* que regula el acceso, proceso selectivo, funciones y régimen aplicable a este colectivo profesional altamente especializado dentro de la Ertzaintza. Se trata de una escala a la que se accede solo con determinadas titulaciones académicas para dar apoyo a la Ertzaintza en tareas muy técnicas que requieren de un nivel alto de especialización como, por ejemplo, las tecnologías de la información, analítica, técnica forense especializada o científica, de archivo, comunicación o asistencia psicológica, etc.

La creación de esta escala se basa en la necesidad de incorporar perfiles muy especializados de apoyo policial que puedan dar respuesta a los nuevos retos de la seguridad pública. Así, las plazas que se creen dentro de esta escala de personal facultativo y técnico de la Ertzaintza, serán de [los grupos de titulación A y C \(subgrupos A1, A2 y C1\) del Gobierno Vasco](#). De hecho, percibirán las retribuciones económicas establecidas por el Gobierno Vasco para esos grupos igual que el resto de funcionarios de Lakua.

La creación de esta escala está prevista desde 1992, pero no se había desarrollado hasta ahora salvo en lo referente a la banda de música de la Ertzaintza. Estas y estos agentes facultativos y técnicos dependerán jerárquicamente de las jefaturas y se les aplicará el régimen de horario, disciplinario, de licencias, permisos, vacaciones, etc. de la Ertzaintza, igual que al resto de las y los agentes.

Proceso selectivo

La Academia Vasca de Policía y Emergencias será la encargada de convocar, también, los procesos selectivos para el acceso a la escala de personal facultativo y técnico. Establecerá una serie de pruebas en función de las titulaciones específicas exigidas para los puestos ofertados y las funciones a desarrollar. Este procedimiento selectivo de Arkaute se podrá completar con la realización de un curso de formación específico, que tendrá, también, carácter selectivo y estará conformado por dos ciclos: el primero, orientado a aprender

la estructura y funcionamiento de la Ertzaintza, y el segundo, dirigido a adecuar los conocimientos de las titulaciones específicas a las necesidades de la Ertzaintza.

Igualmente, las persona que ya son agentes de la Ertzaintza, que ya dispongan de la titulación correspondiente y cumplan el resto de los requisitos establecidos, podrán participar en las convocatorias de acceso a la escala personal facultativo y técnico. Tanto por turno de promoción interna como por turno libre y, cuando accedan, quedarán en situación de excedencia voluntaria de su puesto en la Ertzaintza. En este caso, no deberán realizar el curso de formación orientado a aprender la estructura y funcionamiento de la Ertzaintza.

